



Historia Ezagutzeko Zentroa

Centro de Interpretación Histórica



Mayo/Maiatza 2005 • D.L.: BI-1446-05 • Ale Kopurua/tirada: 2.000



■ Centro de Interpretación Histórica / Historia Ezagutzeko Zentroa	2
■ Programa Escolar / Eskola Programa	4
■ Edición de materiales / Materialen argitalpena	5
■ Memoria de actividades / Ekintzen Txostena	7
• Programa de inicio / Hasiera ekitaldiko programa	7
• 630 aniversario de la villa / Hiribilduaren 630. urteurrena	9
• Otras actividades / Beste ekintzak	10
■ Ugao-Miraballesko Lagunak / Amigos/as de Ugao-Miraballes	12



Centro de Interpretación Histórica

¿Por qué se plantea el C.I.H.?

El Centro de Interpretación Histórica de Ugao Miraballes surge a raíz de la celebración de los 625 años de fundación de la villa en mayo de 2000, y se inaugura un año más tarde, en junio de 2001.

Este equipamiento nace con dos objetivos: el de mostrar un recorrido por la historia de la villa desde su fundación en 1375 hasta nuestros días, al calor del trayecto del Camino Real, verdadero artífice de esta fundación; y el de interpretación y posible mejora del entorno natural, paisajístico, ecológico... En definitiva, trabajar el futuro estudiando el pasado.

¿Qué es el C.I.H.?

El C.I.H. cuenta con una exposición permanente donde se refleja la evolución de la villa y de su comarca en sus diferentes aspectos. Visitar la exposición es la introducción perfecta al Itinerario diseñado para conocer el municipio. Ugao-Miraballes se convierte de este modo en un "Territorio Museo". Los servicios que presta el C.I.H. son los siguientes:

1 Atención al público: En su horario de apertura se puede visitar el Centro, la exposición permanente y recoger la información publicada hasta el momento.

2 Programa de visitas guiadas: La visita guiada consta de dos partes: Exposición e Itinerario por el núcleo urbano. Solicitar la visita es totalmente gratuito, si bien hay que pedir cita con una semana de antelación. Las visitas se desarrollan jueves y viernes a la tarde y los sábados a la mañana.

3 Programa Escolar: La mejor manera de recuperar la historia y trabajar un futuro

sostenible es iniciar a los/as escolares desde los primeros cursos. El C.I.H. desarrolla un programa diferente para cada ciclo de educación primaria y otro para educación infantil.

4 Edición de materiales: Elaboración de diferentes materiales que den a conocer el municipio y la comarca: itinerarios, paneles exteriores, revista, guía de recursos,...

5 Centro de documentación: Vuestra ayuda es necesaria para que el C.I.H. pueda archivar el máximo número de documentos e imágenes (copias) con la mayor información posible. Cede tus imágenes

para hacer copias y te regalaremos una ampliación.

6 Actividades abiertas: Jornadas, exposiciones, salidas... son algunas de las actividades que desarrolla el Centro, además de colaborar en otras.

7 Ugao-Miraballesko Lagunak: Grupo de personas con un interés especial en la historia y/o medio-ambiente del municipio. Hacerse miembro de este grupo es totalmente gratuito y da lugar a disfrutar de ciertas ventajas, como envío de información, actividades exclusivas o precios reducidos en las diferentes actividades.



Zer da Historia Ezagutzeko Zentroa?

Historia Ezagutzeko Zentroak erakusketa iraunkor bat du, eta bertan, hiribilduaren eta eskualdearen bilakaera erakusten da, hainbat alderditatik. Erakusketa bisitatzea hasiera ezin hobea da udalerrira ezagutzeko diseinatutako ibilbideari ekin aurretik. Horrela, bada, Ugao-Miraballes "Lurralde Museo" bihurtu nahia da.

Historia Ezagutzeko Zentroak zerbitzu hauek ematen ditu:

- 1 Jendearentzako arreta.** Irekita dagoenean, Zentroa eta erakusketa iraunkorra bisita daitezke, eta horrez gain, orain arte argitaratutako informazioa ere jaso daitezke.
- 2 Bisita gidatuak.** Bisita gidatuak bi zati ditu: batetik, erakusketa, eta, bestetik, herriaren erdigunean zehar ibilbidea egitea. Bisita gidatua doakoa da, baina astebete lehenago jakinarazi behar da bisita egin nahi dela. Bisitak ostegun eta ostiral arratsaldeetan, eta larunbat goizean izaten dira.
- 3 Eskola Programa.** Historia berreskuratzeko eta etorkizun iraunkorraren alde lan egiteko modurik onena ikasleek txiki-txikitatik hori guztia ezagutzea da. Historia Ezagutzeko Zentroak Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzeko programa bat dauka garatuta, eta beste bat, Haur Hezkuntzarako.
- 4 Materialen argitalpena.** Udalerrira nahiz eskualdea ezagutarazteko zenbait material egiten dira; esaterako, ibilbideak, kanpoko panelak, aldizkariak, baliabideen gida...
- 5 Dokumentazio zentroa.** Zuen laguntza ezinbestekoa da Historia Ezagutzeko Zentroak ahalik eta dokumentu eta irudi (kopia) gehiena artxibatu ahal izan dezan, ahalik eta informazio gehiena dutela. Zure irudiak kopiak egiteko uzten badiz-

kiguzu, argazki handitu bat oparituko dizugu.

6 Jarduera irekiak. Jardunaldiak, erakusketak eta irteerak dira Zentroak egiten dituen zenbait jarduera, eta horiez gain, beste jarduera batzuetan ere laguntzen du.

7 Ugao-Miraballesko Lagunak. Udalerraren historiari eta/edo ingurumenari buruzko interes berezia duen lagun taldea. Talde horretako kide izatea doakoa da, eta kide izanez gero, zenbait abantaila izango dituzu; besteak beste, informazioa jasoko duzu, bereziki taldeko kideentzat diren jarduerak egiteko aukera izango duzu, eta zenbait jardueratan prezio murriztua izango duzu.

Zergatik jarri nahi da Historia Ezagutzeko Zentroa?

Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentroa egitearen ideia 2000ko maiatzean sortu zen; hain zuzen ere, Ugao-Miraballes hiribilduaren fundazioaren 625. urteurrenaren ospakizunean. Zentroa handik urtebetera inauguratu zen; hots, 2001eko ekainean.

Ekipamendu horrek bi helburu zituen: batetik, fundazioaren eragile nagusi bat oinarritzat hartuta —hau da, Errege Bidea oinarritzat hartuta—, hiribilduaren historia ezagutaraztea: 1375. urtean sortu zenetik gaur egun arteko historia, hain zuzen. Eta, bestetik, ingurune naturala, paisajistikoa, ekologikoa... interpretatzea eta ahal den neurrian hobetzea. Azken batean, etorkizuna lantzea, iragana aztertuz.

Historia Ezagutzeko Zentroa



Eskola programa

Historia Ezagutzeko Zentroaren alderdirik garrantzitsuenetako bat **ESKOLA PROGRAMA** da. Programa honen bidez, ikasleei Ugao-Miraballesko eta eskualde horretako ezaugarri historikoak, ingurumenekoak eta sozialak ezagutarazi nahi zaizkie. Bertan egindako zenbait jardueraren bidez, udalerria eta bere ingurunearekin lotzen da, eta horrez gain, Nerbioi ibaiak lurralde horretako historiaren eta ingurumenaren bilakaeran izandako garrantziaren berri ematen da. Haurrek oso modu atsegina eta dibertigarria ikasten dute nolakoa izan zen hiribilduaren jatorria, nola fundatu zen, bertako eboluzio historikoa, etab. Gainera, hiribilduaren etorkizunari buruz ere hausnartzen dute.

Hezitzaile talde batek gidatzen du zentroko bisita, eta bertan, jarduera hauek egiten dira:

- Erakusketa iraunkorra bisitatzen da, eta erakusketaren edukien nondik norakoak azaltzen dira.
- Zentroaren gaiarekin lotutako tailer bat egiten da, partaideen adinera egokituta.
- Udalerriari ibilbide gidatu bat egiten da, eta bertan, ikasleak Ugao-Miraballesko eta eskualdeko historian garrantzia izan zuten zenbait pertsonaia ikusiko dituzte; esaterako, ostalaria, olagizona, Don Juan...

Programa hau lehen aldiz antolatu zenean (2004), Ugaoko Eskolako bost taldek parte hartu zuten, eta, orotara, 107 ikasleak bisitatu zuten Historia Ezagutzeko Zentroa. Bigarren aldi honetan inguruko udalerrietako ikastetxeei ere eskaini zaie programa honetan parte hartzeko aukera, eta hurrengo urteetan, eskaintza Bizkai osora zabaltzea nahi da.



Programa escolar

Uno de los apartados más importantes del C.I.H. es el **PROGRAMA ESCOLAR**, que trata de dar a conocer a los grupos de escolares las características históricas, ambientales y sociales de Ugao-Miraballes y su comarca. Mediante diferentes actividades se relaciona el municipio con su entorno dando a conocer además la importancia del río Nervión en la evolución histórica y medioambiental del territorio. Los niños y niñas aprenden de una forma amena y divertida el origen y fundación de la villa, su evolución histórica... reflexionando también acerca de su futuro.

La visita al Centro está atendida por un equipo de educadores e incluye la realización de varios bloques de actividad:

- Visita a la exposición permanente donde se explican los diferentes contenidos de ésta.
- Realización de un taller relacionado con la temática del Centro y adaptado a la edad de los/as participantes.
- Itinerario guiado por el municipio, donde los y las escolares se van encontrando con diferentes personajes representativos en la historia de Ugao-Miraballes y su comarca como la mesonera, el ferrón, Don Juan...

En la primera edición del programa (2004) participaron cinco grupos de Ugaoko Eskola, visitando el C.I.H. un total de 107 escolares. En la segunda edición se ha ofertado el programa a los centros escolares de los municipios colindantes, pretendiendo ampliar a toda Bizkaia la oferta en próximas ediciones.



Materialen argitalpena

Historia Ezagutzeko Zentroak urtero argitaratzen du materiala, herritarrek bertako historia nahiz lantzen diren ingurumeneko edukiak ezagut ditzaten. Une hauetan material hauek daude: hiru ibilbide autogidatu, kanpoko interpretazio panel bi, urteko aldizkari-memoria bat eta baliabideen gida bat.

Ibilbideak

Interpretazio ibilbideen helburua bizi garen ingurunea ezagutzen laguntzea da, eta horretarako, hauek guztiak ezagutzea ezinbestekoa da: iragan historikoa eta ingurumenekoa, gure ingurunekeo ekosistemen ezaugarriak, kontserbazio eta hobekuntzarako arauak...

2004. urtean bi gida argitaratu ziren: *Bisita iraunkorraren* autogida (gidarik gabe bisita egiteko laguntza koaderno) eta *Hiriko ibilbidea* (udalerraren plano, puntu nagusiei buruzko informazioarekin, eta horren laguntza koaderno).

Bisita horiek (*erakusketa iraunkorra* eta *Hiriko ibilbidea*) bi modutara egin daitezke: argitaratutako materialen laguntzaz libreki, edota bisita gidatuan espezializatutako pertsona baten laguntzaz. Azken horretarako, ezinbestekoa da aurretiaz hitzordua eskatzea.

2005. urtean beste bi ibilbide argitaratu dira:

- *Ugao-Miraballes / Zeberio / Orozko / Ugao-Miraballes: autoz egiteko ibilbideak.*
- *ZORTZI MENDIAK ibilaldia.*

Material horiek doakoak dira eta Historiaren Interpretazio Zentroan eska daitezke.

Panelak

Beharrezkoa iruditzen zaigu laguntza panelak argitaratzea; izan ere, informazioa osatzeaz gain, bisita egiten ari garen bitartean segurtasuna ematen dute.

Lehenengo kanpoko interpretazio panelak (Udiarragako ermitaren eta Jane Jauregiaren aurrean) udalerraren 630. urteurrenaren ospakizun ekitaldian jarriko dira (2005eko maiatzaren 21ean eta 22an). Hurrengo ikasturtean Hiru Tutuko Iturriari buruzko panel bat egingo da.

Baliabideen gida

Aurki argitaratuko den Baliabideen gidan Ugao/Miraballesek eta bere inguruak eskaintzen dituen baliabideei buruzko informazioa emango zaie kanpotik datozei (Historiaren Interpretazio Zentroa, ostalaritza, lo egiteko lekuak, museoak...). Gida horren helburua udalerria ezagutaraztea, horri buruzko informazioa ematea eta beste eskualde eta probintzia batzuetako pertsonak erakartzea da.

Aldizkaria

Aldizkari hau lehenengo urte eta erdian Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentroak izandako funtzionamendu guztiari buruzko memoria da. Bertan, programaren funtzionamendua eta garapena zertan oinarritu den azaldu nahi izan da, labur eta irudi bidez. Lehenengo argitalpen hau maiatzeko urteurreneko ospakizun ekitaldiekin batera argitaratu da, baina gure asmoa hemendik aurrera martxoaren 4an argitaratzea da; hain zuzen ere, hiribildua fundatu zen egunean.



Edición de materiales

Anualmente el C.I.H. realiza diferentes materiales con el objetivo de acercar al pueblo de una manera sencilla tanto la historia como los contenidos medioambientales que se trabajan. Los materiales existentes en estos momentos son los siguientes: tres itinerarios autoguiados, dos paneles interpretativos exteriores, una revista-memoria anual y una guía de recursos.

Itinerarios

El objetivo de los itinerarios interpretativos es ayudar a conocer el entorno en el que vivimos, conociendo su pasado histórico y medioambiental, las características de los ecosistemas que nos rodean, normas de conservación y mejora...

En el 2004 se han publicado dos guías diferentes: la Autoguía de la *exposición permanente* (cuadernillo de apoyo para visita sin guía) y el *Itinerario Urbano* (plano del municipio con información de los puntos principales y su cuadernillo de apoyo).

Estas visitas (*exposición permanente* e *Itinerario Urbano*) se pueden realizar bien de forma libre con el apoyo de los materiales editados, o bien con una persona especializada en una visita guiada, para lo que es necesario solicitar cita con antelación.

En el 2005 se han publicado otros dos itinerarios:

- *Ugao-Miraballes/Zeberio/Orozko/Ugao-Miraballes: Itinerario en Coche.*
- *Marcha OCHO MONTES.*

Estos materiales son totalmente gratuitos y se pueden solicitar en el C.I.H.

Paneles

Consideramos necesario editar paneles de apoyo para realizar los itinerarios ya que además de complementar la información, aumentan la seguridad durante la visita.

Los primeros paneles interpretativos exteriores (delante de la Ermita de Udiarraga y delante del Palacio de Jane) se colocarán durante los actos de celebración del 630 aniversario (21 y 22 de mayo de 2005). El próximo curso se realizará un panel sobre la Fuente de los Tres Caños.

Guía de recursos

La Guía de Recursos, que en un muy corto espacio de tiempo será publicada, está dirigida a informar sobre los recursos (C.I.H., hostelería, alojamiento, museos) que ofrece Ugao-Miraballes y su entorno a las personas que acudan de visita. El objetivo de esta guía es dar a conocer el municipio, informar del mismo y atraer a personas de otras comarcas y provincias.

Revista

La presente revista es la memoria del primer año y medio de funcionamiento completo del C.I.H. de Ugao-Miraballes. En la presente se pretende recoger brevemente y con imágenes lo que ha sido el funcionamiento y desarrollo del programa. Esta primera edición se ha publicado coincidiendo con los actos especiales de aniversario de mayo, si bien en los próximos cursos es nuestra intención llevar a cabo su publicación coincidiendo con el 4 de marzo, fecha en la que se fundó la villa.



Hasiera ekitaldiko programa

2004ko martxoaren 30etik apirilaren 7ra

Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentroaren lehen bisita gidatua martxoaren 27an egin zen, eta bertan, udalerriko agintariek, inguruko alkateek, adituek eta laguntzaileek parte hartu zuten. 2004ko martxoaren 30ean ireki ziren ofizialki atek jendearentzat, eta irekitze ekitaldi hartan zenbait jarduera egin ziren.

Haurren I. marrazki lehiaketa



“Horrelakoa zen Ugao/Miraballes duela 500 urte”

“DON JUAN” Ugaoko Eskolara joan zen eta neska-mutilak lehiaketa horretan parte hartzera animatu zituen. Guztira 96 marrazki jaso ziren, eta hauek izan ziren irabazle:

- ARACELI CASTAÑIZA MAYO (Haur Hezkuntza)
- XAVIER GUTIÉRREZ CASILLAS (Lehen Hezkuntzako 1. zikloa)
- NEKANE ESPÍA ÁLVAREZ (Lehen Hezkuntzako 2. zikloa)
- ANDER CAÑADA ORTIZ (Lehen Hezkuntzako 3. zikloa)

Hitzaldiak

“Ugao-Miraballesko pasadizoak”

Martxoaren 30ean JAVIER GARCÍA RODRIGOK herriko pertsonaia karismatikoen zenbait pasarte ekarri zituen gogora Jane Jauregian. Gehiago jakin nahi baduzue, JAVIk 2005. urte honetan udalerraren 630. urteurrena dela-eta argitaratuko duen “Ugaoko Kronika” liburuan aurkituko duzue. Liburua euskaraz nahiz gazteleraz idatzita egongo da.

“Bizimodua eta gizartea antzinako erregimenean (1375-1833)”

Apirilaren 6an JOSE MANUEL CIFUENTES PAZOS ugaotar historialariak eta “MONOGRAFÍAS DE PUEBLOS DE Bizkaia: UGAO-MIRABALLES” liburuaran egileak eman zuten hitzaldia. Bertan, udalerria fundatu zenetik 1. Karlistaldira bitarteko udalerriko bizi baldintzak, lanbideak, estamentuak eta hiribilduko gizartearen beste zenbait alderdi deskribatu zituen Cifuentesek.

Erakusketak

“Confirmaciones del privilegio de fundación de Miravalles”

Berrirekierako ekitaldi garaian, Historia Ezagutzeko Zentroa ikustera joan ziren lagunek marrazki lehiaketaren erakusketa ikusi ahal izan zuten Jane Jauregiaren 2. solairuan, bai eta erakusketa iraunkorraren gunean hiribilduaren fundazioari buruzko beste erakusketa hau ere: “Confirmaciones del privilegio de fundación de Miravalles” (XVIII. mendea). Horixe da hiribilduaren fundazioko pribilegioei buruz kontserbatzen den dokumenturik zaharrena.



El C.I.H. de Ugao-Miraballes realizó su primera visita guiada el 27 de marzo, en la que participaron autoridades municipales, alcaldes de la zona, expertos y colaboradores...

El 30 de marzo de 2004 se abrieron oficialmente las puertas al público; diferentes actividades acompañaron esta reapertura.



Programa de inicio

Del 30 de marzo al 7 de abril de 2004

I concurso de dibujo infantil



“Así era Ugao-Miraballes hace 500 años”

“DON JUAN” visitó Ugaoko Eskola animando a niños y niñas a participar. Se recogieron un total de 96 dibujos, resultando ganadores/as los/as siguientes:

- ARACELI CASTAÑIZA MAYO (Educación Infantil)
- XAVIER GUTIÉRREZ CASILLAS (1.º Ciclo de Primaria)
- NEKANE ESPÍA ÁLVAREZ (2.º Ciclo de Primaria)
- ANDER CAÑADA ORTIZ (3.º Ciclo de Primaria)



Conferencias

“Anécdotas de Ugao-Miraballes”

El 30 de marzo **JAVIER GARCÍA RODRIGO** recordó en el Palacio Jane algunos pasajes protagonizados por personajes carismáticos del pueblo. Si queréis saber más, JAVI lo ha recogido en el libro “Crónica de Ugao” que se publica este 2005 con motivo del 630 aniversario de la villa, tanto en euskera como en castellano.

“La vida y la sociedad en el antiguo régimen (1375-1833)”

El 6 de abril fue el turno del historiador **JOSE MANUEL CIFUENTES PAZOS**, vecino del municipio y autor de “MONOGRAFÍAS DE PUEBLOS DE Bizkaia: UGAO-MIRABALLES”. Cifuentes nos describió las condiciones de vida, oficios, estamentos y otros aspectos de la sociedad de la villa desde su fundación hasta la 1.ª Guerra Carlista.

Exposiciones

“Confirmaciones del privilegio de fundación de Miravalles”

Durante el periodo de actividades de reapertura las personas que visitaron el C.I.H. pudieron disfrutar de la exposición del concurso de dibujo en el 2.º piso del Palacio Jane y de la exposición del documento “Confirmaciones del privilegio de fundación de Miravalles” (S. XVIII) en la zona de la exposición permanente donde se trata la fundación, ya que éste es el documento más antiguo que se conserva donde se recogen los privilegios de fundación de la villa.

Hiribilduaren urteurrena

Aniversario de la Villa

2005eko martxoak 4

630.

Hiribilduaren 630. urteurrena zela-eta, martxoaren 4an ekitaldi hauek antolatu ziren:

Con motivo del 630 aniversario de la Villa, el 4 de marzo, se realizaron las siguientes actividades:

erakusketak/exposiciones



- Libro de Cuentas de Miravalles (1725-1768): Kontu liburu hau udal artxibategikoa da, eta Foru Artxiboaren zaintzapean dago. Bertan, 1762ko uholdeak aipatzen dira.
- Argazki zaharrak eta Ugao-Miraballesko uholdeen argazkiak, herritarrek emanak.

- Libro de Cuentas de Miravalles (1725-1768): Este libro de cuentas perteneciente al archivo municipal y cuya custodia la realiza el Archivo Foral, hace referencia a las inundaciones de 1762.
- Fotos antiguas y de las inundaciones de Ugao-Miraballes cedidas por vecinos/as.

haurrentzako jarduerak actividad infantil

Haurrak jolasteko hainbat jarduera antolatu ziren. Gotorleku bat jarri zen, eta han barruan, Erdi Aroko denda bat, gaztelu bat (puzgarria, noski) eta Bizkaiko Erdi Aroarekin lotutako zenbait lantegi.

Para niños y niñas se desarrollaron actividades relacionadas con el juego. De esta manera se instaló una fortaleza en cuyo interior podían descubrir una tienda medieval, un castillo (eso sí, hinchable) y realizar diferentes talleres relacionados con la edad media en Bizkaia.



mahai ingurua: “Ugao-Miraballes, Ibaia eta uholdeak” mesa redonda: “Ugao-Miraballes, el río y las inundaciones”



Urteurren honetako gai nagusia uholdeak izan dira. Mahai inguru hartan, Jose Isasik (obrak egin ziren garaian alkate), Manuel Fernándezek (obraren ingeniari arduradun) eta Xavier Iturratek (Bizkaiko Foru Aldundia, Ingurugiro Saila) hitz egin zuten, eta bertan gai hauek aztertu ziren: uholdeen arrazoia, Ugao-Miraballes pareko Nerbioi ibaiaren bideratze obra eta obra horren egungo egoera. Mahai inguruaren ostean, hizlariak eta parte hartzaileek cavaz topa egin zuten, hiribilduaren 630. urteurrena ospatzeko.

El tema principal de este aniversario han sido las inundaciones. En una mesa redonda que contó como ponentes invitados con Jose Isasi (Alcalde durante las obras), Manuel Fernández (Ingeniero responsable de la obra) y Xavier Iturrate (Diputación Foral de Bizkaia. Medio ambiente), se analizó la razón de las inundaciones, la obra de encauzamiento del río Nervión a su altura por Ugao-Miraballes y el estado actual de éste. Tras la mesa redonda ponentes invitados y asistentes brindaron con cava por los 630 años de la villa.

Euskal mitologiari buruzko jardunaldiak

Euskal Mitologiari buruzko Jardunaldiak 2004ko abenduan egin ziren, Etoriki Dantza taldeak prestatutako Olentzeroren emanaldi bereziarekin batera. Bertan, Euskal mitologiako pertsonaiak izan ziren protagonistak.

Jardunaldiak Jane Jauregian egin ziren, Historia Ezagutzeko Zentroaren egoitzan. Bi hitzaldi (abenduen 13an eta 14an) eta "Etxeko Botikari" buruzko ikastaro bat izan ziren.

Bizkaiko erritu eta kondariak Ritos y leyendas de Bizkaia



Lehenengo hitzaldia TOTI MARTINEZ DE LEZEA nobela historikoen idazle entzutetsuak eman zuen. Euskal Herriko kondairak aztertu zituen ikuspuntu kritiko batetik, eta horrez gain, zenbait kondaira desmitifikatzen saiatu zen, bere liburuak idazteko jaso dituen datuen bidez. Bi ordu pasatxoko hitzaldi hartan, Totik gai ugari jorratu zituen, eta bere hastapenei buruz galdetu zitzaizenean, bere curriculumaren nondik norakoen berri ere eman zuen.

La primera charla corrió a cargo de la conocida escritora de novela histórica TOTI MARTINEZ DE LEZEA, y trató sobre las leyendas del país, analizadas por Toti con un punto crítico e intentando desmitificar alguna de ellas aportando datos que ha ido recopilando para elaborar sus obras. Durante más de dos horas Toti trató diferentes temas, incluso llegando a comentar su curriculum al preguntarle por sus inicios.

Las Jornadas sobre mitología vasca se desarrollaron en diciembre del 2004 en coordinación con la actuación especial de Olentzero preparada por el grupo Etoriki Dantza taldea, en la que los personajes mitológicos vascos fueron los protagonistas.

Las jornadas se celebraron en el Palacio Jane, sede del C.I.H., y consistieron en dos charlas el 13 y el 14 de diciembre y un curso de "Botica Casera".



Jornadas sobre mitología vasca

Euskal herriko pertsonaia mitologikoak Personajes mitológicos de Euskal Herria



Hurrengo hitzaldia euskaraz izan zen, eta **ARITZA BERGARA** mitologian espezializatutako sestaoar idazleak eman zuen. Ikus-entzunezko euskarrien bidez, Aritzak bere liburuetarako sortu diren euskal pertsonaia mitologikoen marrazkiak erakutsi zituen; eta, hain zuzen, bertan egile eta antropologo entzutetsu askoren informazioa biltzen da; esaterako, Joxe Migel Barandiaranena.

La siguiente charla, en euskera, corrió a cargo del escritor ses-taotarra **ARITZA BERGARA**, especializado en mitología. Apoyado por medios audiovisuales, Aritza mostró los dibujos de los diferentes personajes mitológicos vascos creados para sus libros, en los cuales, según él, se recoge la información de autores y antropólogos destacables como Joxe Migel Barandiaran.

Etxeko botika Botica casera



Jardunaldi hauek "ETXEKO BOTIKA" ikastarorako izen ematearekin amaitzen ziren. Ikastaro hartan, 17 lagunek parte hartu zuten. Landareei buruzko ikastaro hori Kultur Etxeko 3. solairuan egin zen, 2005eko urtarrilaren 11 eta martxoaren 1 artean. Bertan, hainbat errezeta egin ziren; adibidez, honako hau:

Las jornadas cerraban el plazo de inscripción para el curso "BOTICA CASERA", al cual se apuntaron un total de 17 personas. Este curso sobre uso de plantas se desarrolló en el 3.º piso de Kultur-Etxea, entre el 11 de enero y el 1 de marzo del 2.005 y realizaron recetas como la que se muestra a continuación:

PLANTAIN XARABEA

- Jarri 100 cc ur eta 200 g azukre lozazko ontzi batean, eta berotu su ez-titan kolorea hartu eta xarabe puntua lortu arte.
- Prestatu infusioa koilaratxokada bat plantain eta 200 cc ur erabiliz. Iragazi.
- Nahasi bi prestaketak, eta ongi irabiatu.
- Gorde tapadun ontzi ilunetan.

Nola hartu: hartu egunean 2 edo 3 koilarakada eztariko mina arintzeko.

Nola igarri xarabe puntua lortu den: jarri xarabe tanta batzuk plater batean. Platerean zabaldua geratu behar dute; ez dute gogorrak izan behar, ez eta itsatsita geratu behar ere. Xarabea egiteko erabilitako azukre kopuruak urarenaren bikoitza izan behar du.

JARABE DE LLANTÉN

- Colocar 100 cc de agua y 200 gr de azúcar en un recipiente en lozano y calentar a fuego mediano hasta que tome color y espese a punto de jarabe.
- Preparar una tisana con 1 cucharadita (de té) de llantén y 200 cc de agua. Colar.
- Mezclar ambas preparaciones revolviendo bien.
- Guardar en frascos oscuros con tapa.

Forma de tomar: ingerir 2 ó 3 cucharadas separas por día para calmar dolores de garganta.

Como reconocer el punto del jarabe: Colocamos unas gotas de jarabe sobre un plato. Deben extenderse y no quedar duras ni pegadas. La proporción que se usa es de 2 partes de azúcar por una de agua.



Dokumentazio zentroa Centro de documentación

Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentroa argazkiak biltzen ari da bertako artxibategia osatzeko. Hori dela-eta, "Ugao/Miraballes ospakizunetan" gaiarekin lotutako zuen argazki zaharrak eskuratu nahiko genituzke; hau da, jazoeraren baten ospakizuna agertzen duten argazkiak. Zuen argazkien kopia egin ondoren, jatorrizko argazkiak itzuliko dizkizuegu, baita 15x18 tamainako argazki handitu bat ere.

Irudiez gain, egunkari zatiak, aldizkari zatiak eta abar ere artxibatzen ari gara. Inork etxean "Ecos de Ugao" aldizkaria izanez gero, Historia Ezagutzeko Zentroak izugarri eskertuko lioke ekarri eta kopia eginen uztea. Izan ere, azken zenbakiak baino ez ditugu.

Herritarrei eskatutako lankidetzak horrek fruituak ematen baditu, Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentroak erakusketa bat egingo du jasotako lanekin.

El Centro de Interpretación Histórico de Ugao-Miravalles está recogiendo fotos para completar su archivo. Con este fin, nos gustaría poder contar con vuestras fotos antiguas relacionadas con el tema "Ugao-Miraballes celebrando", es decir, fotos en las que se esté celebrado algún acontecimiento. Después de hacer copias se os devolverán las originales más una ampliación de 15x18.

Al igual que con las imágenes, también se están archivando recortes de periódico, revistas... El C.I.H. agradecería especialmente a aquellas personas que tuviesen en casa "Ecos de Ugao" que nos los prestasen para poder realizar copias, ya que solamente disponemos de los últimos números.

En función de la respuesta a esta colaboración popular, el Centro de Interpretación Histórica de Ugao-Miraballes realizará una exposición con los trabajos recibidos.

Ugao-Miraballesko lagunak

Ugao-Miraballeseko historia edota ingurumenarekiko interes berezia daukaten pertsonak biltzen duen taldea da. Fitxa bat beteta taldeko kide izango zara eta honako abantailak izan-go dituzu:

- Zentroan egiten denaz eta prestatzen diren ekintzei buruzko informazio zuzena.
- Ugao-Miraballeseko Lagunak taldeko pertsonen bakarrak zuzendutako ekintzetan parte hartzeko aukera.
- Talde honetako beste kideekin batera Ugao-Miraballeseko historia edota ingurumenari buruzko proiektuak garatzeko aukera, Zentroaren laguntzaz.

Este grupo pretende unir a aquellas personas que tengan un interés especial en la historia y medio ambiente de Ugao-Miraballes. Rellenando una ficha entrarás a formar parte del grupo y podrás beneficiarte de las siguientes ventajas:

- Información directa sobre lo que se hace en el Centro y sobre las actividades que se desarrollarán.
- Poder participar en actividades destinadas exclusivamente a miembros de Ugao-Miraballeseko Lagunak.
- Poder desarrollar junto a otros miembros del grupo proyectos sobre la historia y/o medio ambiente, con la colaboración del Centro.

Behin datu pertsonalak emanda, "Ugao-Miraballesko lagunak" taldearen parte izango zara.

Horrela, eskualdeko eta H.E.Z.ko berriei buruzko informazioa jasoko duzu.

Ekimen honen bitartez, paraje hau atsegin eta honekiko interesa duten pertsonen taldea osatu nahi dugu. Halaber, zentroak inguru hau kontserbatzeko eta hobetzeko antolatuko dituen jardueretan parte hartzeko aukera izango duzu.

Al cumplimentar tus datos personales pasarás a formar parte del grupo "Ugao-Miraballesko Lagunak".

Así, recibirás información sobre este entorno y las novedades producidas en el C.I.H.

Con dicha iniciativa se pretende formar un equipo de personas a las que les guste e interese esta zona. De esta forma, si lo deseas, podrás colaborar en su conservación y mejora mediante tu participación en las actividades organizadas por el Centro que más te gusten.



Datu pertsonalak / Datos personales

Izena/Nombre: _____ Abizenak/Apellidos: _____

Jaiotze data/Fecha de nacimiento: _____ Helbidea/Dirección: _____

_____ Herria/Población: _____ PK./C.P.: _____ Herrialdea/Provincia: _____

Posta elektronikoa / Correo electrónico: _____ Telefonoa/Teléfono: _____ Lanbidea/Profesión: _____

OHAR GARRANTZITSUA:

Zuen artikulua eta/edo "Lagun" fitxa guri helarazteko bi aukera dituzue: Ugao-Miraballesko H.E.Z.ko bulegoan entregatzea edo helbide hauetara bidaltzea:

"Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentroa" Jane Jauregia • Udiarra kalea, 38 • 48490 UGAO-MIRABALLES (Bizkaia)

NOTA IMPORTANTE:

Para hacernos llegar vuestros artículos y/o ficha de "Amigos/Amigas" podéis entregarlos en la oficina del C.I.H. de Ugao-Miraballes o remitirlos a:

"Centro de Interpretación Histórica de Ugao-Miraballes" Palacio Jane • C/ Udiarra, 38 • 48490 UGAO-MIRABALLES (Bizkaia) kultur-etxea.ugao@bizkaia.org